

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

10. astea (2025eko martxoaren 3tik 9ra)


Gripe-birusaren zirkulazioak beheranzko joerarekin jarraitzen du, ABSak bezalaxe, azken honek gora behera txikiak dituen arren. COVID-19 kasu kopurua balio baxuetan mantentzen da.

- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 348,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (363,8/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak behera egiten jarraitzen du. Bronkiolitisaren tasak behera egin du aste honetan eta COVID-19arena balio baxuetan mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 459 lagin jagoleen % 64,4 baieztatu da, 5 gripe-birus, 3 SARS-CoV-2 eta ABS bat detektatu direlarik.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 15,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,5/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 209 gripe-birus, 77 ABS eta 34 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikoko jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 348,7 kasukoa izan da (363,8/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 286,0/100.000 izan da Araban, 346,8/100.000 Bizkaian eta 380,9/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2948,1 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urteko adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1466,4 eta 437,8 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 151,3 kasukoa izan da (157,9/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) arabera intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI gehienetan aurreko astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 10. astea	Tasa 9. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	311,4	307,6	1,01 (0,92-1,11)
Arabar Errioxako ESI	501,6	518,6	0,97 (0,68-1,38)
Barakaldo-Sestaoko ESI	295,7	315,5	0,94 (0,81-1,08)
Barrualde-Galdakaoko ESI	383,5	392,9	0,98 (0,90-1,06)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	385,6	431,0	0,89 (0,83-0,96)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	342,4	351,1	0,98 (0,87-1,10)
Uribeko ESI	241,0	271,1	0,89 (0,79-1,00)
Bidasoako ESI	345,8	397,6	0,87 (0,74-1,02)
Debararrenako ESI	409,4	381,4	1,07 (0,91-1,27)
Debagoienako ESI	300,7	310,1	0,97 (0,80-1,18)
Donostialdeako ESI	354,9	351,8	1,01 (0,93-1,09)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	424,3	453,4	0,94 (0,82-1,07)
Tolosaldeako ESI	445,8	453,5	0,98 (0,84-1,16)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 13,4 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (15,8/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du eta 100.000 biztanleko 213,8 kasutan kokatu da (249,4/100.000 aurreko astean). COVID-19arena baxu mantentzen da eta 100.000 biztanleko 1,5ekoa izan da (1,2/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 45 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 64,4 baieztatu dira. 5 gripe-birus (4 AH3 eta AH1pdm09 bat), 3 SARS-CoV-2 eta ABS bat atzeman dira. 16 errinobirus eta 4 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 11,1ean mantendu da (% 11,9 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 2,2ra jaitsi da (% 5,1 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena % 6,7raino igo da (% 1,7 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 35,6ra igo da (% 20,3 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE


	10. astea		9. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	5	11,1	7	11,9	494	33,7
SARS-CoV-2	3	6,7	1	1,7	25	1,7
ABS	1	2,2	3	5,1	67	4,6
Metaneumobirus	3	6,7	1	1,7	28	1,9
Parainfluenza	1	2,2	1	1,7	50	3,4
Adenobirus	0	0,0	6	10,2	58	4,0
Errinobirus	16	35,6	12	20,3	253	17,3
Urtaroko CoV	4	8,9	5	8,5	61	4,2
Enterobirus	1	2,2	2	3,4	37	2,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 15,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,5/100.000 aurreko astean), 16,4/100.000 gizonetan eta 15,3/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 51,7 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 49,2 eta 11,2 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 2,0koa izan da 100.000 biztanleko (2,3/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena 0,7koa 100.000 biztanleko (1,1/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,3 kasukoa 100.000 biztanleko (0,3/100.000 aurreko astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du aste honetan eta % 16,3an kokatu da (% 18,6 aurreko astean). ABSren positibotasuna jaitsi egin da ere eta % 10,3an kokatu da (% 11,7 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 2,1ekoa izan da (% 2,9 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	10. astea		9. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	291	2,1	273	2,9	6579	2,0
Influenza	263	16,3	269	18,6	5969	26,5
ABS	252	10,3	257	11,7	5514	12,7

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 209 gripe-birus, 77 ABS eta 34 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 209 gripe-birusetatik, 129 A motakoak izan dira, 51 A(H3), 18 A(H1)pdm09 eta 11 B motakoak. 2024/40 astetik 8628 detekzio erregistratu dira, 6641 (% 77,0) A motakoak eta 1987 (% 23,0) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3329 birusetatik, 2226 (% 66,9) A(H3) eta 1103 (% 33,1) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko martxoak 12

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza